

IRITZI ARTIKULUA

## Aldiri, Akademiako satelite



Ula I. Busturia  
Arkitekto doktorea eta  
EHUko irakaslea

Jasotze data: 2021-06-21  
Onartze data: 2021-09-10

+++++

Erredakzio Kontseiluko kideon lehen bileran, *Aldiri* euskal argitalpengintzako proiektu xume gisa irudikatu genuen. Kontseilukideak dagoeneko lagunak ginen, baina *Aldirik* bildu gintuen euskal komunitatean hitza hartu eta leku bat lortzeko desioarekin eta hastapenetako energia inuzentea konpartitzeko gogoarekin. Ibilbidean, proiektuari «zientifikotasuna» gehitu zitzaion, aldizkaria batez ere ikerketa ofiziala egiten zuten euskal idazleek elikatuko zutela ohartu ginenean. *Aldiri* ikerlariarentzako etxe bilakatzeko, aldizkari zientifiko izateko “karrera” egitea estrategikoa bilakatu zen, bertan txertatzea hil ala biziko apustua zelakoan. Aldizkari zientifikoak gobernatzen dituen Akademiaren orbitan egoteko beharrak *Aldiri*ren ibilbidea, etorkizuna eta jarduna baldintzatu izan dituela, Erredakzio Kontseiluko kideen artean adostasun handia dago.

Akademiak (unibertsitateetako irakaskuntza- eta ikerkuntza-sareak osatua) ikerketa ulertzeko eta balioztatzeke eredu bat asmatu du eta aldizkari zientifikoek berau legitimatzeko balio dute. Ikerlari eta unibertsitateko postu duin bat lortzeko bidean daudenentzat, puntuazio-sistema bat sortu dute, eta, puntuak eskuratzeko, artikuluko zientifikoak Akademiak hobetsitako aldizkari-rankinean argitaratu behar dira. Nolabait esateko, aldizkari zientifikoaren liga bat sortu dute, lehen mailako futbolaren ligarekin antzekotasun handiekin: negozio handi bat eta ikerketaren (eta jakintzaren) elite bat muntatu dute. Komunitate zientifikoaren parte izan nahi baduzu, artikuluko baten argitaratzeko prozesuan barruratu behar duzu zeure burua, onarpena jaso eta argitaratu arteko bide luze eta nahaspilatua ibiliaz. Aldizkari askotan gainera, argitaratzeko ordainketako bidesaria ere ezartzen da.

Akademiak artikuluko zientifiko baten kalitatea bermatzeko, bete beharreko formatu eta idazketa-eredu bat hobetsi du, eta eredura egokitu ezean, aldizkariak artikulua ez dute onargarritzat joko. Perbertsoena zera da, sistema honen bidez produzitutako jakintza asko ez dagoela eskuragai, ordaindu egin behar delako horietariko asko irakurtzeko. Sistema honek badu jokaldi perfektuaren itxura.

Gizartean dauden beste edozein sistemaren aurrean gertatzen den bezala, norberak aukeratu behar du kanpo edo barne gelditzen ote den, sistemaren arauak (gustuko izan edo ez) onartuz edo ezereztatuz. *Aldirik*, euskara hutsean burututako aldizkariaren hautuagatik, Akademiaren satelite izateko asmoa izan zezakeen soilik. Madrileko arkitekto lagun batek brometan bota zidan behin, zeinen zaila zen *Aldiri* Madrileko liburu-dendetan eskuratzea, argitaratu bezain pronto ale guztiak agortzen omen zirelako. «Arki-hit» bihurtua irudikatzen zuen *Aldiri* hiriburua espainiarraren eszenan. Eta bromaren ostean, galdera serioa jaurti zidan: nolatan ez genuen ingelesezko bertsio itzulia prestatzen, hainbeste esfortzu eskatzen zuen idazte- eta argitaratzelana mundu osoan irakurgarri izan zedin. Ulertezina zitzaion. Euskal literaturan diharduen idazle askok jasoko zuen tankerako komentariarik inoiz. Lagunari azaltzen saiatu nintzen, *Aldiri*ren bokazioa euskal komunitatean transmisore eta eragile bilakatzea zela eta, bere erronka nagusia, txikitatsunean mantentzea eta bizirautea zela. Kanpoko fokuari begirada eta entzutetsua izatea hain garrantzitsua den arkitekturaren diziplinentzat, *Aldiri*rentzat leku isil eta umil bat defendatzeak zer-nolako duintasuna eskaintzen dion arkitekturari, gerora ulertu dudana zerbait da.



1. irudia ~ Aldiri.  
Egilea ~ Ula I. Busturia.

Nire gorputzean gorde da Gidor Bilbao UEUKidearekin eta Maiderrekin izandako azken bilera hura 2016. urtean. Donostian bildu ginen hiruok, *Aldiri* Akademiak onesten dituen aldizkari zientifikoaren ligan sartzeko aukerak aztertzeko. Gidorrek argitasunez esan zigun euskaraz idatzitako aldizkariak beirazko sabai bat dutela, eta bigarren kategoriako ligan gelditzea zela *Aldiri*ren patua. Bere aholkua izan zen, EHUko irakasleak gure idazle potentzialak izanik, horiek zaindu genitzala.

Horregatik, *Aldiri* indexatua egotea jomuga bat izan zen aldizkariaren ibilbidean. Indexazioari esker idazle askorentzat erakargarriago suertatzen zen *Aldiri* idaztea —amu bat eta ordainsari gisako papera jokatzu— eta indexazioak aldizkariari kalitate-berme bat eskaintzen zion —betiere, aldizkari zientifikoaren parametro-ulermentan, noski—. Indexazioaren ordain ematea, besteak beste: idazleei gutxienezko eskakizun batzuk ezarri behar izatea artikulua zientifikotzat jo zedin eta artikulua ingelesezko laburpena izatea. Formatuan zorrotasun eta zurruntasuna irabazi edo galdu zuen aldizkariak, nork jakin.

*Aldirik* ez dio aldizkari zientifikoak direnen irudiarri jarraitu, paperezko objektu gozagarria izateari garrantzia eman zitzaiolako. Irakurterrazagoa izan nahi zuen, eta arkitekturako aldizkaria izatean, irudiak bere leku propioa behar zuen, idatziak adinako garrantziarekin. Diseinu grafikoa eta aldizkariaren irudia asko zaintzeko hautua erabaki sendoa izan da ibilbidean zehar. Helburu tinko honek aldizkari zientifikoaren bidetik urruntzen gintuen, erdibidean gelditzeko arrisku handiarekin. Gure belarrietara iritsi zen, *Aldirik* zenbait forotan komiki ezizena zuela. Broma astuna, kritika latza edo piropoa, bakoitzak epai dezala. Durangoko azokaren UEUren standean, publizitate-panfleto batekin konfunditu gintuenik ere bazen.

Akademiako satelite izateak onura asko dakartza, barnera begira jartzen zaituelako, eta batez ere, liga propio bat eraikitzen behartzen zaituelako. Zeinen garrantzitsua den, edozein ekintza eta proiektutan murgilduta garenean, noizentzat, noizekin eta zertarako ari garen hausnartzea eta argitasunez definitzen jakitea. *Aldiri-plazaren* nolakotasunak profil anitzeko euskarazko irakurlea irudikatzen zuen, adin eta diziplina askotakoa, euskarazko proiektu batek elkartua. Euskarazko militantziaren komunitatea alegia. Irakurle edo harpidedunak akaso espezifikotasuna galtzen du, baina idazle-komunitatearen gehiengoa, arkitektoa izan da. Euskaraz eta arkitekturaz pentsatu eta idazteko «eskola» bat bilakatu zen *Aldiri*. Lehen pertsona diot, *Aldiri* idazten trebatzeko leku izan dela niretzat eta espero dut beste askorentzat ere izan izana.

*Aldiri* Donostiako Arkitektura Eskolako ume bat da, bertan ikasi dugulako idazle eta ekintzaile gehienak. Irudipena dut *Aldiri*ri euskal komunitate arkitektonikoan leku propio bat lortu izanaren aitortza egin behar diogula. Bide horretatik, aldizkarian jorratutako gai guztietatik «Post-modernoak, gaur» zenbakiarena berreskuratu nahi nuke, oihartzun berezia izan zuelako euskal komunitate arkitektonikoan. Donostiako Arkitektura Eskolako historia propioa postmodernitateari loturik delako, *Aldirik* zeharo asmatu

zuen postmodernitate mugimenduaren abanguardia izandako euskal arkitektoen testigantzak jasoz. Omenaldi-papera betetzen zuen zenbakian jasotakoak munta berezia izan zuen, euskal komunitate arkitektonikoak soilik ulertu eta apreziatzerik duena. Bertatik eta bertakoentzat pentsatu eta egindako edukia. Honelakoek ematen diote *Aldiri*ri euskal komunitatearentzat ekoiztutako proiektu izatearen balioa eta zentzua.

Dela urte pare bat, aldizkariaren enegarren krisi-une batean, bestelako formato batzuk arakatzearen bidea mahai-aineratu zen Erredakzio Kontseiluan. Artikulu zientifikoaren bidearekin eten, eta arkitekturaz eta bestelako gaiez ikertzen jarraitzeko beste eredu propio eta libreago batzuk frogatzeaz aritu ginen. Horretarako, paperezko formatua baztertzeko klabea suertatu zen, edo gutxienez beste formato batzuekin hibridatzeko beharra. Arkitekturako proiektuen artean *The funambulist* eta *Bartlebooth* eta euskal komunitatean diren *Jakin* edo *Lisipe* argitaralpen-proiektuak izan genituen aztergai. Entzunezko podcast testigantzak jaso, ekarpen esperimentalagoak frogatu edo liburu-formatu baterantz salto egiteko aukerak tanteatu ziren. Bide berriak ez zuen arrakasta handirik izan, kontseilukideen artean zalantza gehiegi sortu zituen. Aldaketaren bultzatzailea eta aldekoa izan nintzen arren, atzera begira onartu behar dut, Akademiaren satelite izateak eskaini diola *Aldiri*ri izaera propio bat, eta sen hori aldatzekotan, beste proiektu baten jaiotzaz arituko ginatkeela. Txoria, txori.

+++